



Donostian, 2021eko ekainaren 8an

Gerente, Pertsonalaren Gerenteorde eta Berdintasun Zuzendari andereak,

Jada denbora luzeegia pasa da UPV/EHUK Kontziliazio Gida baten argitalpen eta funtzionamendurako konpromezua hartu zenetik eta emaitzarik ez dugu eskuartean oraindik ere. Bitarte honetan, Administrazio eta Zerbitzuetako Langileen baimenei buruzko Eskuliburua da zenbait egoera kudeatzeko tresna.

Gauzak horrela, premia handiarekin zuzentzen gara zuengana konplexua, larria eta bidegabea den egoera bati irtenbide bat bilatu nahiean. AZParen Baimenen eskuliburuaren 17. puntuan, *Kontsulta, Tratamendu edo Azterketa Medikoetara joatea* atalean baimen hau jasoa dago: “Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora joan behar duen 65 urtetik gorako gurasoei laguntzea, bai eta ezintasun iraunkorra duen ezkontideari”, alabaina, gaixotasun larriak direla eta, edota mugikortasun arazoak direla medio, medikuaren kontsultara joateko laguntza beharra duten bikotekide (ezkontide edota izatezko bikote), edota izendaturiko pertsonen kasuekin aurkitzen gara, baina, ezintasun iraunkorrik ez dagoenez, ez dago laguntza hau gauzatzeko baimenik.

Bestalde, eskuliburu honetako 8. puntuan, Senideen Istripua, *Gaixotasun Larria edo Heriotza* atalean hauxe jasotzen da: “Ezkontidearen, bikotekidearen, seme-alaben edo langilearekin bizi diren gurasoen istripua, gaixotasun larria edo heriotza” egoeretan egun batzuetako baimen baduela langileak, baldin eta, besteak beste, baldintza hauek betetzen diren:

Honakoak hartuko dira gaixotasun larritzat:

- UPV/EHUKo Prebentzio Zerbitzuko Osasun Atalak halakotzat hartuak.
- Anestesia osoarekin egindako ebakuntza eta gau bateko ospitaleratzea.
- Gaua ospitalean igarotzea gaixoa bertan dagoenean
- Ebakuntzaren ondoren etxean arreta etengabea behar duen susperraldia, beti ere, UPV/EHUKo Prebentzio Zerbitzuko Osasun Atalak halakotzat jotzen badu

Honenbestez, STEILASetik ahal den azkarren bideratu daitekeen eskakizun bate egin nahi dugu:

17. puntuko atalean jasotzen den bigarren baimenari hobekuntza:

“Kontsulta, tratamendu edo azterketa medikora joan behar duen 65 urtetik gorako gurasoei laguntzea, **ezintasun iraunkorra edota laguntza beharra duen bikoteari edo izendaturiko pertsonari**”, baldin eta, UPV/EHUKo Prebentzio Zerbitzuko Osasun Atalak halakotzat (laguntza beharra) onartzen dituen.

Egoera hauek konponbide on eta duin bat izateko duten premia helarazi nahi dizuegu, eta zentzu honetan neurriz, arduraz eta eraginkortasunez elkar aritzeko deia.

STEILAS

UPNA

Sin título - Adobe Acrobat Pro 2017
Archivo Edición Ver Ventana Ayuda

Inicio Herramientas Sin título x Iniciar sesión

21 / 46 136%

210 x 297 mm

1. Se autoriza el acompañamiento a familiares de primer grado de consanguinidad y afinidad así como a familiares con una discapacidad legalmente reconocida hasta el segundo grado de consanguinidad a consultas médicas correspondientes al sistema de salud en el que esté incluido.
2. Se autoriza, así mismo, el acompañamiento a cónyuge, pareja de hecho o familiares de primer grado de consanguinidad y afinidad así como a familiares con una discapacidad legalmente reconocida hasta el segundo grado de consanguinidad a:
 - Procesos quirúrgicos ambulatorios programados o con ingreso hospitalario igual o menor a 24 horas.
 - Realización de pruebas complementarias diagnósticas.
 - Sesiones de quimioterapia y/o radioterapia.
3. Se autorizará también dentro del horario de trabajo el acompañamiento a dichas personas a cualquier consulta médica particular, siempre que en este caso se recupere el tiempo de ausencia.
4. El acompañamiento a las consultas señaladas deberá ser comunicado a su responsable con una antelación mínima de 24 horas, debiendo presentar en el Servicio de Recursos Humanos justificante de asistencia.

11:40
13/10/2021